



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOKO HAUTESKUNDE BATZORDEAREN 2011KO ABENDUAREN 1EKO EBAZPENA, VICTOR RUIZ DE GAUNA RUIZ JAUNAK AURKEZTUTAKO HELEGITEA EBAZTEN DUENA.

AURREKARIAK

Lehena: 2011ko azaroaren 18an, aurkeztu den hautagaitza bakarraren behin-behineko onespena argitaratu zuen Hauteskunde Batzordeak. Hautagaitza horretako kideak honako hauek dira:

ALVARO ARREGUI, lehendakaria.

JUAN FELIPE SEEMANN FRIES, lehendakariordea.

MARIA BELÉN DOMÍNGUEZ HERNAEZ, idazkaria.

JUAN PEDRO ITURBE BENGOA, diruzaina.

LEONARDO TREJO GARCÍA, batzordekidea.

JOSE MARIA PRADERA GURRUCHAGA, batzordekidea.

Bigarrena: 2011ko azaroaren 25ean, VICTOR RUIZ DE GAUNA RUIZ jaunak, EMFko Batzarreko Kirolarien Estamentuko kide denak, erreklamazio bat aurkeztu zuen Hauteskunde Batzordearen aurrean, aurkeztutako hautagaitza baztertzeko eskatuz, ez Álvaro Arregui Otadui jaunak eta ez Juan Pedro Iturbe Bengoa jaunak ez dituztelako betetzen ezarritako lege baldintzak, zehazki, Euskal Mendizale Federazioaren Estatutueta 28. artikuluko 1. eta 2. puntuak.

Aurreko egitate horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena: LEHENDAKARITZARAKO HAUTAGAITZA

Euskal Mendizale Federazioaren Estatutueta 28.1 artikulua haxe ezartzen du: *“Lurralde federazioetako lehendakariak ez dira Batzorderako hautatuko, berezko batzordekideak baitira, eta ezingo dute inolako hautagai zerrendatan parte hartu”*.

Álvaro Arregui Otadui jauna, une honetan, Gipuzkoako Mendizale Federazioko lehendakaria da, 2011ko azaroaren 16an interesatuak berak aurkeztutako agirian jasotakoaren arabera.

Ondo bereizi behar dira karguaren bateraezintasuna eta aurkeztutako hautagaitzak eskatutako baldintzak bete beharra.

Karguaren bateraezintasunak sortzen duen arazoa ondoren konpon daiteke, hau da, Euskal Mendizale Federazioaren lehendakaria behin betiko izendatzen den unean Gipuzkoako Mendizale Federazioko lehendakari kargutik dimitituz, Joseba Fernández Arribas abokatuak Eusko Jaurlaritzari egindako kontsultak argitzen duenez. Hala ere, kasu honetan, arazoa beste bat da, izan ere, hautagaitza akastuna da formaren aldetik, ez baititu estatutuek eskatutako baldintzak betetzen.

Horregatik guztiagatik, hautagaitza zuzenbide osoz baliogabea da, estatutuen arabera legez kanpoko baita (28.1 artikulua), Álvaro Arregui Otadui jaunak bateraezinak diren bi kargu betetzen dituelako, batetik, Gipuzkoako Mendizale Federazioko lehendakari baita eta, bestetik, Euskal Mendizale Federazioko lehendakaritarako hautagai.

Bigarrena: DIRUZAINAREN HAUTAGAITZA

EMFren Estatutuetako 28.2 artikulua honako hau ezartzen du: *“Zuzendaritza Batzordeko kideak berriro aukeratu ahal izango dira, baina agintaldien iraupena gehienez zortzi urtekoa izango da, edo bi agintaldikoa, eta Zuzendaritza Batzordean izandako kargu guztien agintaldia hartuko da kontuan. Hala ere, zortzi urte igaro ondoren edo agintaldia amaitzetik beste bi agintaldi igaro ondoren, hauteskunde edo izendapen prozesu berrietan parte hartu ahal izango dute.”*

Victor Ruiz de Gauna Ruiz kirolariaren argudioen arabera, Juan Pedro Iturbe Bengoa jaunak, diruzain izateko hautagaitzara aurkeztu denak, ezin du hautagaitza formalizatu, Euskal Mendizale Federazioaren Zuzendaritza Batzordeko berezko kide izan baita ondoz ondoko bi agintalditan, Gipuzkoako Mendizale Federazioko lehendakari izan delako ondoz ondoko bi agintalditan, zehazki, 2000/2004 eta 2004/2008 agintaldietan.

Horrekin lotuta, Hauteskunde Batzordearen ustez, ez dago inolako denbora mugarik, izan ere, lehenago aipatutako agintaldiak Gipuzkoako Mendizale Federazioko lehendakari karguari dagozkio, eta, hortaz, Euskal Mendizale Federazioko Zuzendaritza Batzordeko berezko kide zen. Hau da, kargu hori araudiaren ezarpenaren ondorio zen, eta ez hautaketa demokratikoaren ondorio.

Horregatik, diruzain izateko hautagaitza zuzenbidearekin bat dator, ez duelako araudia hausten eta, beraz, ez dagoelako baliogabetzeko arrazoirik.

Horregatik, honako hau

ERABAKI DU

Egindako aurkaratzea zati batean onartzea eta, horren ondorioz, aurkeztutako hautagaitza osorik BALIOGABETZEA, Álvaro Arregui Otadui jaunak ez dituelako betetzen lege betebeharrak.

Honako ebazpen hau ez da irmoa, eta lehen auzialdiko helegitea aurkeztu ahal izango da Hauteskunde Batzordearen beraren aurrean, ebazpena jakinarazi edo, hala

dagokionean, argitaratu eta bi laneguneko epean. Erabaki honen aurka aurkeztutako helegiteari edo aurkaratzeari buruz Hauteskunde Batzordeak emango duen ebazpenaren aurka ere helegitea aurkeztu ahal izango da Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, eta zazpi egun naturaleko epea izango da horretarako.

Donostian, 2011ko abenduaren 1ean / *Donostia, 1 de diciembre de 2011*

HAUTESKUNDE BATZORDEAK / JUNTA ELECTORAL



LEHENDAKARIA / EL PRESIDENTE



IDAZKARIA / EL SECRETARIO